

(2013ko urria)



## ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALA (EDS) ZERTAZ ARI GARA?

*XIX. mendearen azkenetik aurrera. Eleizak hurretik jarraitzen dihardu "gai sozialak" deitutakoen bila-kaera, egoera ekonomikoa, politikoa, kulturala, ingurunekoa, iparralde-hegoaldea hartu-emonak, bakea... Leon XIII.a Aita Santuaren Rerum Novarum (RN) entziklika (1891) hartzen da Eleizaren Doktrina Sozialeko lehenengo idazkitzat, zuzenean jorratzen ebazalako gizadiaren zati handi batek jasaten ebazan gizarte arazo larriak.*

*EDSak xede pastoralak dau eta bere asmoa, kontzientzia ilustratzea ez ezik, borondatea mugiarazotea da. Ez da egokia be, guztiontzat berehalako balioa daukien arau unibersaletan irautea: hori ez da nahikoa. EDSak prozesu bat ahalbideratu gura dau, fededun bakoitxak eta borondate oneko lagun bakoitxak ekintzarako bideak hautatu daizan. Paulo VI.ak "bereizketa" deitzen dauana da. Bereiztea ez da, beste barik, errealitatea aztertzea edo doktrinak sakontzeko sasoia edo gure inguruko gorabeheren buruzko epai moralak emateko unea: guzti hori da, baina jarduerarako aukera zehatzera heltzeko bide lez.*

### irakurketa eta alkarrizketarako gida


1. Ezagutzen zenduan "Eleizaren Doktrina Soziala" esamoldea?



2. Zure ustez, Eleizak beren beregi hitz egin daike gizarte gaien arloan? Zer esan beharko leuke?



3. Zure esperientziaren arabera, gai sozialok behar dan beste aztertzen edo lantzen dira zure parrokiari, komunitateari, alkartean, taldean, eleizbarrutian...?





**Eleizak, aurretik ez eban emon eretxirik gizarte arazoan inguruan?** Guraso Santuek, moral eta teologia arloko tratatuek jokabide sozialari buruzko erespideak emoten ebezan, baina XIX. mendearen amaierako gertaerek, besteak beste gizarte mobimentuen gorakada eta industria-iraultza, orduko justiziari buruko gogoeta moralaren esparrutik haratago kokatzen ziran. Jentaurrean azaltzeko bide barri bati ekiten jako: 'Entziklika' deitutakoari. Hedatu daitezana, gotzainei, estamentu erlijiosoei eta mundu osoari bialtzen jakezan gutunak (ciklós).

Entziklikakaz batera, EDSa dira, Vatikanoko II. Kontzilioko, Sinodoetako eta Aita Santuaren Batzordeetako agiri batzuk eta lekuan lekuko gotzainen edo nazinoetako edo lurraldeetako (Puebla, Medellin, e.a.) Gotzainen Batzarretako beste agiri batzuk.

Hauze litzateke, beraz, Eleizaren Doktrina Soziala: urteak joan urteak etorri, Eleizak gizarte arazoei buruz prestatu eta Aita Santuen eta beste erakunde batzuen esku-hartzearen bidez argitara emon izan dituan irakaspenak; honeen bitartez, gizarte gizatiarragoa, Ebanjelioan agertzen dan Jainkoaren borondatearen arabera mundua eratzan lagundu nahi izan dau.

Giza zientziez eta gizartean bizi diran arazoakaz hartu-emonean dagoan fededunaren esperientziaz bialtzen dan hausnarketa morala. Oinarrian jardunera begira dagoana, errealdadea aldatu eta Jaungoikoaren egitasmoaren arabera bihurtu gura daualako.

Vatikanoko II. Kontzilioa une garrantzitsua izan zan, Eleiza munduan salbamenaren sakramentu lez eraturako Jaungoikoaren herri lez definituz, "mundu honetako errealdadeen autonomia" autortuz eta bere burua gizadiaren zerbitzari apal lez erakutsiz.

EDSa Jaungoikoaren Hitzaz eta, batez be, Jesusen Ebanjelioaz hornitzen da. Zapalketa eta bidegabekeria salatzen eben IZeko profeten jarrera be gogoratu daikegu. Emondako datuen irakurketa sinistedunak -errukitsu eta bihozbera- datuok baloratzea eskatzen dau eta errebelaziotik, batez be ebanjeliotik eratorritako erispideen argitan epaitzea, Jaungoikoak guzti horretaz zer pentsatzen dauan geure buruari itauntea. Hortik sortuko da Jaungoikoaren Erreinuaren egitasmoa hedatu gura dauan bakarkako eta alkarteko konpromisorako deia.



## Rerum Novarum (RN)

Gutun-entziklika beharginen egoerari buruz. Leon XIII.a.

1891

1. Halan ba, Eleizaren auzia eta guztion salbamina jagotea jagokunez, egokitatz joten dogu, anai beneragarriok, eta arrazoi bardinengaitik, beharginen egoerari jagokonez, egin izan doguna egotea, aginte politikoari, giza askatasunari, Estaduen kristinau eratzeari eta antzerako kontuei buruz, eretxi batzuen sofismak ezezteko egokitatz joten doguzan gutunak zuei bialduz... Ez da erraz tratatzeko gaia eta badau arriskurik. Benetan gatxa da aberatsei eta beharginei, kapitala ipinten dabenei eta lana ipinten dabenei ezarri beharreko eskubide eta betebeharrak zehaztea... Dana dala, argi eta garbi ikusten dogu, danak ados dagozalarik, guztiz preminazkoa dala jente apalaren ona eragitea, gehiengoa dalako egoera itsusi, negargarri eta zoritxarrekoa jasaten dauana.



## Gaudium et Spes (GS) Vatikanoko II. Kontzilioa

*Eliza gaurko munduan konstituzino pastoralak.*

1965

**63.** Horregatik, berrikuntza ugari egin behar dira bizitza ekonomiko-sozialean eta aldaketa sakona guztien pentsaeran eta jarreran. Honetarako, Elizak, mendeetan barrena, Ebanjelioaren argitan, arrazoi zuzenak eskatzen dituen justiziazko eta egokitasunezko printzipioak moldatu ditu, bai gizabakoaren bizitzarako eta gizarte-bizitzarako, bai nazioarteko bizitzarako, eta batez ere azkenaldi honetan aldarrikatu ditu. Kontzilio santuak printzipio horiek sendotu nahi ditu oraingo baldintzen arabera eta argibide batzuk eman, batez ere, garapen ekonomikoaren eskakizunei buruzkoak.

## Katolikuak Bizitza Publikoan (K.B.P.)

*Espainiako Gotzainen Batzarra.*

1986

**40-4.** Alde batetik, oraindik badago Elizak, baita lege zibilen bortxaketaren bidez be, gizarte bizitzarako bere arau moralak, esate baterako jokaera eta bizikidetzarako arauak herritar guztientzat, ezarri beharko leukezala uste dauanik be. Ideia horreek ez datoz bat Eleizak gaur egun askatasun erlijiosoari eta gizarte sekularragazko hartu-emonari buruz emoten dituan irakaspenakaz, aita santuaren irakaspenek eta Vatikanoko II. Kontzilioak behin eta barriro adierazo dabenez. Beste muturrean, Estadia konfesionala ez izatearen eta gizakiaren jarduera sekularren bidezko autonomia autortzearen eraginez, bizitza publikoko esparru desbardinetan, Eleizaren edo katolikuen aldetik ez dauala fedean inspiratutako esku-hartzerik izan behar uste dabenak dagoz. Honako edozein jarduera deskalifikatu eta atzera botaten da, eskema konfesional eta klerikal zaharretara bueltatzea dalakoan. Jesukristoren salbamenak gizakiaren alderdi indibidual eta sozialean dauan eragina eta gizarte arazoengatik Eleizearen irakaspena zuzen ulertzeak gauzak beste era batera ikustera garoaz.

## Eleizea eta txiroak.

*Gizarte Pastoraltzarako Gotzain Batzordearen gogapena.*

1994

**8.** Kristinauok, gainera, badakigu miserian bizi diran ume eta zahar, gazte eta heldu, gizon eta emakume horreetako bakotxagan, guzti horreengan sufritzen dauan eta horreetako bakotxagan gure laguntza eskatzen dauan Kristo Jainkoaren Seme eta gizakien anaiaren arpegia ikusi daikegula. Horregaitik, fedearen ikuspuntuaren eraginez, egoeraren azterketa eskakizun bihurtzen da Eleizarentzat, munduan, ezelango atxakia barik, txiroen alde jarduten konprometitzera bultzatzen dauan eskakizun.

## Ekonomia gizakiaren esanetara

*Garizuma eta Pazkoko Pastoral Idazkia.*

*Iruña eta Tuterak, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainak.*

2011

**38.** Bere giza kapitala, bereziki gerora begira behar-beharrezkoa duena, babesten ez duen gizarteak bere berriazko proiektioaren eta herritarren gogoaren gainbehera eragiten du eta gizarte patologien agerpena errazten. Horregaitik tresna legal eta enpresa jarduerak garatzeko egiten dugun deia, inplikaturako gizarte eragile guztien lankidetzarekin, gazteen enplegua eragiteko eta, edozein kasutan ere, bere gabeziaren eraginak arintzeko.



# OTOITZ EGITEKO

**Txiroaren zoria kezka iturri izan da espiritualtasun biblikoan, hau da, kristinau espiritualtasunaren oinarrian.**

## Deuteronomio 24, 14-22

Ez dozu saripeko txiro eta behartsurik sakatuko, nahiz zure anaietarikoa nahiz zure lurraldean eta urian bizi dan arrotzetarikoa izan; egun bakotxean bere lan-saria emongo deutzazu, eguzkia ostendu baino lehen; izan be, behartsua da, eta, bizi izateko, bere lan-sariaren beharretan dago. Horrela, ez deutso Jaunari zure aurka dea darrik egingo eta zuk ez dozu pekaturik leporatuko.

Ez dozu arrotzaren eta umezurtzaren eskubiderik okertuko; alargunaren soinekoak be ez dozuz bahituran hartuko: izan eizu gogoan Egipton jopu izan zinala, eta zure Jainko Jaunak handik atera egin zinduzala: horregaitik, lege hori bete daizula agintzen deutzut gaur.

Zure oriondoak astindu daizuzanean, ez batu adarretako igali-hondarrik; itzi eizuz arrotzarentzat, umezurtzarentzat eta alargunarentzat. Zure mahastiko mahatsa batu daizuzanean, ez batu mahats-hondarrik; itzi eizuz arrotzarentzat, umezurtzarentzat eta alargunarentzat.

Izan eizu gogoan Egipton jopu izan zinala: horregaitik, lege hori bete daizula agintzen deutzut gaur.


**Gizartean kezka eragiten deuskuen gertaerak gogoratu eta giza arpegia ipiniko deutsegu. Jaungoikoari aurkeztuko deutzaguz eta kontuan izango doguz gure jardueran.**

## Txiroen aldarria

- Bedeinkatzen zaitugu, Jauna, txiroen aldarria entzuten dozulako, zapalduak askatzen dozuzalako eta behartsuen sostengu zaralako. Agintetik botaten dituzu ahaltsuak eta apalak goratzen; gosetiei ondasunak emoten deutsezuz eta kendu aberatsei.
- Behartsuari jaramonik ez egin eta bihotza ixten dogunean, begiak zabaltzen deuskuzuz harengan ikusi zaiguzan; behartsuak eskua luzatzen deuskunean, daukaguna erdibanatzearen poztasunera zabaltzen dozu gure bihotza.
- Norberekoitasun pilatzailearen sarea apurtzen laguntzen deuskuzu, euki, gastatu eta kontsumitzearen grinatik askatuz, sekula ez gaitez an desbardintasunetara ohitu eta ez deigun anai-arrebei bihotza itxi.

Hauxe dinotsugu, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Y ESTOS DERECHOS...  
A RESPETARLOS, EH?  
/NO VAYA A PASAR COMO  
CON LOS DIEZ MANDAMIENTOS!



Karidadea eta Zuzentasuna Eleizbarrutiko Ordezkaritza



**IDTP**

Elizbarrutiko Teologia eta Pastoralta Institutua  
Instituto Diocesano de Teología y Pastoral